

Orainaldiko euskal aldizkariak

Leendik ere iñoiz egiña dut onako aldizkari erakusketa bat. On zaigu, izan ere, geure kultura arloari begiratuz, gaurko euskal kinka onetan, nolako ta norainoko tresnak dauzkagun jakitea. Ezer baiño leen aitortu bear dugu, gaur arlo zail onetan, aldizkarietan diñot, iñoizkorik ugarien gabiltzala, gerra aurreko urteai ezertxo ere kendu gabe.

Azken guda aurretik aldizkariok ziran aipatu bearrak: Gipuzkoa'n: «**Argia**» asterokoa, gure aspertu barik irakurri oi ebana; «**Euskal Esnalea**» (1931'tik, **Yakintza**), jakitunena; «**Antzerti**», A. M. Labaien'ek zuzendua; «**Poxpolin**», umetxoena; «**Aranzazu**», euskeraz ta erderaz, eta abar. Bizkaia'n: «**Euskera**», Euskaltzaindiarena; «**Euzkerea**», Bilbao'ko «**Pizkundia**» alkarteak abertzale, euskeldun berri, euskel ikasle, mendigoizale ta olakoentzat argitaratua; «**Euzkadi**» egunerokoa, bere Euzkel-Atal ederragaz; «**Jesus'en Biotzaren Deya**», Aita Josulagunena; «**Jaungoiko-Zale**» ta «**Ekin**», bizi luzekoak, Jaungoiko-Zale abade bazkunak erriarentzat emona; «**Karmen'go Argia**», karmeldarren aldizkaria. Gazteiz'en «**Gure Mixiolaria**». Nafarroa'n: «**Zeruko Argia**» ta «**Irugarrengo Prantziskotarra**», aita kaputxinoak aterata. Baiona: «**Eskualduna**» ta abar. Auek denok mugaz emendikoak beintzat ixildu bearra izan zuten gerra ostean.

Gero, urteetako ixillaldi neketsu ostean, sortu ta agertu ziran gaurkoak, batzuk ixilka, beste batzuk erbestean, Mugaz andik, egia esan, etzuten orrenbeste eragozpen izan; eta asi ziranetik gaur arte zintzo ari dira hemen arloan: «**Herria**» asterokoa, Beloke'ko beneditarren «**Otozlari**», «**Alderdi**», Euzko Alderdi Jeltzalearen Deia, 1946'tik beti langille, Baiona'ko Izarra landetxean bizitako euzkotar bizkorrak argitaratua, eta geroagoko

llardegi, Iztueta'tar Paulo, Kamiñazpi, Andonegi'tar Asier, Iralagoitia'tar Per-
min pasiotarra, Muxika'tar Errupin. Bilbao'ko Gráficas Bilbao'n irarten zaru-
Arrezkero guztian lan bikaina egin du, eta egiten ari da, «Jakin» aldiz-
kariak. Azken-zenbakia —1979, urtarrilla-martxoa—, aro berriko 9'garrena
noski, esku artean daukat, eta «Ipar Euskal Herriaz» ari da; demografia,
ekonomia, politika ta nekazaritzari buruz idazten dute Davant, Errotabehera,
Kanblong, Suhubiette ta Xarriton'ek, Jose Azurmendi ta Joan Mari Torreal-
dai-k ere beren lanak emanik. 150 orrialde dauzka azken ale onek.

Anaitasuna. — Ona goraberarik naiko ikusi duen beste aldizkari asper-
gaitz bat, gaur ere bere bidetik aurrelari dabillena. Zarautz'en ain zuzen ere
aintziñatik zan A. Prantziskotarrak ateratzen zuten orri bat, «Anaitasuna»
zeritzana. Bizkaia'n ere antzeko zerbait osotu nairik, gipuzkoar orri are
geigarri bezela —ez bait errez beste bat ateratzeko baimena lortzea—
1950'an Bizkaia'n zabaltzen asi ziran Prantziskotarrak, I. Berriatua buru-
zalarik. Zortzi orrialde zituan lenengotan, baiña ziape-azia lez aundi egiñaz
joan zan eta gaur, 25 urte igarota gero, bere 378'garren alean, dotore ta
42 orrialdeko datorkigu.

Arrosko ere, gangarra erakutsi oi du. «Zeruko Argiaz» batera, Euzkad-
ko prentsa bakartzat lez jotzen du bere burua. Slogan bezela irakargi orrian
au dakar: «ANAITASUNA. Euskal Herriari, informazioa euskaraz. Euskal prentsa
ta euskaldunon hitza, ZERUKO ARGIA. GEU GARA EUSKAL PRENTSA.
«ANAITASUNA», «ZERUKO ARGIA». Eta besteak zer? Baionako HERRIA as-
terokoa bere 1.490'garren zenbakian, GOIZ-ARGI asterokoa, bere 432'garren
zenbakian, KARMEI 1949-56 sortua ta bere irugarren aroan 153'garren zen-
bakian doana; OTOIZLARI, iru-illabeteko, euskera ta euskal arimari begira
«lora dadilla» deadarka aspaldi danik dabillena; eta Bizkala'n «AGUR», «KILI-
KILI», «ZER», «ARAN», eta Lazkauin «JAUNAREN DEIA» ez ote dira ezer?
Ez ote diotse zer euskal arimari? Besteak ixil-azirik norbere burua lartxo ja-
toseari ausarkeria esan oi zaio.

Geroago Donostia'n azaldu izan dan «Kurpil»-en aintzindari. Lenengo urte-
teetan lau ale ziran, gero urtean bi, 132 bat orrialdekoak.

Olerti. — Poesi-aldizkaria. Amar urtetan Larrea'n argitaratua, 1959-1963.

Gaur bezela ainbat aldizkari genitun garai artan ere euskal alorrean lan
zegitenak. Baiña, ni beintzat, utsune batez oartu nintzan: gure ele-eder sai-
llak ez zeukan —gaur ere ezta— bear bezelako aldizkaririk. Onela idatzi
nuen: «Euskal idazle ta olerkaririk asko dazauguz euren gogoeta amesita
ta irudikizun txanbeliñak nun agertarazi ez daukiela, edo argitaratzekoan
txanda luze gogorra zaindu bear dabena. Ots, gure olerkariak eta bertu-
lariak ez daukie nun asazkatu, nai bestean, euren biotz-barrera. Orrege-
sortu nuen «Olerti». Eta gaur ere bere saillean jarraituko zuen goitiko ere
gozpen gogorrik gertatu ezpalitza.

Amar urteko lana etzan makala izan. Olergikintzak, nere iritziz, aurre-
kada aundia egin zigun. Leendik zeudenez gain, ainbat olerkari berri sortu z-

ran. Berton idatzi zuten gaur dauzkagun poeta ta olerkari onenak. Lan ba-
tzuk oso-osorik jatorran ziran; beste batzuk itzuliak. Amar urteko lan ura,
oso billatua da gaur ere, bildumak egiteko ain zuzen. Gaur berriz berbiztu
nairik gabiltza, baiña arriskutsua da aurretik diru-kontuak bederen ondo
biribildu ezik.

Jaunaren Deia. — Euskal teologoaren aldizkaria. Lazkau'ko beneditarrak
ateratzen dute, urtean lau zenbaki —martxoa, ekaiña, iraila ta abendua—
ditularik. Oraingo zuzendaria —lenengo I. Baztarrika izan zan— Errupin Mu-
xika dugu, ta auek maizen idazten dutenak: X. Basurko, M. Pagola, J. M.
L. Larañagag, A. Apaolaza, P. Andiazabal, J. Azpitarte, E. Igartza, J. M. Za-
bala, J. M. Reemnteria, P. Agirrebaltzategi.

Sortu zutenetik beti doa aurerantz, arnas aundiko. Eliz-gai zabal bat
artu ta orren inguruan pillatu oi dituzte idazleak beren lanak, sakon eta
gizonki erabilliak geienbat. Bizi luzea opa diogu aldizkari bikain oni.

Jesus'en Biotzaren Deia. — Leendik ain eder zitzaigun J. B. Deya, ixil-
une luze samarra egin ondoren, berriz asi zan 1961'an arnasa eman eta
argi dirdaltsuan zabaltzen. Bigarren aldian zetorren, azaletik ikusgarri ta ba-
rrukoa mamitsu.

Berton idazten zuten: Manzisor, Patxi Etxeberria, Patxi Altuna, Juan
Goikoetxea, Daniel Baztarrika, M. Urien, X. Altuna, Iñaki Epelde, Zunzunegi,
P. Solozabal, J. Kerexeta, J. A. Etxebarria, A. Arsuaga, Oizartabal, Iñaki
Goikoetxea, Peli Korta, I. Agirre, Uranga, Txomin Irigolen, Peli Areitio, M.
Gisasola, Joseba Lazkano, Androndegi, Axmutil, Gomika, B. Enbeita, G. Ga-
rate, Iñaki Gallastegi, Oso, Tene, X. Murgoitio, ta abar.

Sei urteko bizia izan zuen aldizkari polit mamitsu onek.

Nora...? — Irungo Lasalletarren ikastetxeko aldizkaria, 1956'an sorturi-
koa; itxuraz apala, baiña mamiz aberatsa. Gure euskal idazle jator biok, Bi-
taño izurtzarrak eta I. Olabeaga donostiarrak, idazten zuten geienbat. Bi-
garren aroa Zarautz'en bete zuen eta berton idazle saila zebillen bizkor,
J. Mari Artzaluz, Ozerinjuregi, J. Arin, Basarri, ta abar. Amar urtetan gartsu
jokatu zuen eta txalogarri dugu.

Estibaliz. — Araba'ko Zaindariaren muiño-gaintxo lerdenetik aspaldi fe-
de-argia dirdir-azoten ari diran beneditar lekaideen aldizkaria, ogetaz urtee-
tan argitara emana ta oraintsu itzalia. Euskeraz ere ba-zekarzkin idazlanak,
bertsoak eta idaztien iritzi emateak, batez ere Ixidor Baztarrika an da-
goenetik.

Erein. — Oiñatiko laterandar ikasle gazteen aldizkaria. 1961'tik atera
zuten. Urtean lau bat zenbaki, bere filosofi, itz-neurtu, lan arin ta sakonez
gaiñezka. Guztiz amazpi bat ale argitara zituzten; bertan geien idatzi
zutenak auek dituzu: E. Osa, A. Erkizia, J. Agirre, A. Anduaga, G. Elortza,

P. Arregi, I. Oleaga, M. Lartza, J. M. Allur, A. Urondo, Sakone, J. A. Azpiroz, Kepa Maillea, P. Lasa, B. Madina, Peli Igartua, Ulemendi, ta abar. Ikasle gazteak euskal egiteko egoki-baiño egokiagoa, noski.

Laiaketan. — Pasiotar ikasle gazteena: lenengo Urrutxu'n agertu ziren 26'garren zenbakiraiño, eta ondorengoak Deustu'n. Lan sakon eta jakinagorriak daude bertan. Idazlerik bizkorrenak: X. Mendiguren, J. M. Mendizabal, J. R. Tapia, J. Lizarralde, R. Badiola, D. Zabala, J. M. Zulaika, N. Alda, Patxi Elgezabal, Arizti, J. Iraola, J. L. Sudupe, X. Sasieta, J. Zearreta, L. M. Astigarraga, F. Iralagoitia, J. L. Ugalde ta besteak. Aldizkari bikaiña.

Bidez. — Euba'ko pasiotar gazteak osotzen zuten, amar urtetik amalauna bitartekoak alegia. Egiak, kontuak, kirolak, emengo ta ango berriak zekarzkin aldizkaritxoak. Aita Fermin zan beronen arduradun, eta auek idazten zuten geienez: Astienza, Petralanda, Izagirre, Errekaklde, Bikandi, Gerediaga, Arrinda, Jauregi, Sagasti, Retolaza, Atutxa, Aldazabal, Txopitea, Arriaga, Landia ta abar. Taldeka osotzen zituzten lanik asko, tiau orretan alkarrean sutu ta alkarri erakutsirik.

Arnas. — Billaro'ko Sakramentino ikasle gazteak ateraten zuten, alribat idazle berri bertan idatziaz egiñik. Izan ere, idazleak idazten ikasteko bere lanak nun argitarazi bear du. Eta barruko aldizkariok mesede ikaragarria egin zuten garai artan; ordukoak dira gaur lan ederrik asko dagitenak.

Gogoz. — Begoña'ko karmeldar Teologi-ikasleak atera zuten 1965'tik aurrera. 80 orrialde zeuzkan zenbaki bakoitzak. Au zioan bigarren zenbakiak «Arnasez gaur ere gu. Gaztearen doai bat, arnasa... Ugarria ta beroa gurea... Bizi danak, gazte danak, arnasa dari... Orregaitik atera da gaur ere «GOGOZ». Gazte mordoska baten arnas bizia, noski».

Auen lanak zetoezn: J. M. Etxebarria, P. Uribarren, L. Baraiazarra, Garmendia'tar Karmel, J. I. Mitxelna, Aljel Borda, Antonio Olea, A. Aginaga, J. M. Arrizabalaga, S. Zabaleta, eta abar. Idazleok batzuk bertokoak ziren, eta beste batzuk Vien'an ikasten ari ziran euskaldun teologu gazteak. Gaur zorianez, emen idazten zuten asko idazle bikain ditugu. Gazteen arteko berri-aldizkari txukunen frutua, ain zuzen.

Agur. — 1970'ko orrillaren 30'an zabaldu zan lenengo zenbakia. 30 urte bizi izan zan —lenengo illeroko ta gero asteroko— «Agur»-ena bertan bait. Guztiz zortzi orrialde egunerokoen tamañuan. J. Beitzegi, J. Arenaza, I. Zubiri ziran zuzendari.

Len-agurrean au zioan: «Bilbo-ko urian, Ibaizabal ertzean, jaio nahi du Oraintxe jaio be, luzaroan lurpean egon eta gero. Jaio-berri, orril au be. Baiña lurrean ez da jaio iñoiz ezer, leenago azia erein barik. Onela ere azia be urte zaarretakoa da: areitz zaararen ezkurra. Ernekaitzik emon barik lur emonkor bat eta aro on bat noiz etorriko itxaroten egon eta azkenik berri-erne. Bizi-bizi erne be».

Idazle onak izan zituan: J. Beitzegi, J. Arenaza, Landajueta, Solozabal, Onaindia, L. Arteaga, J. Arregi, Aurre-Apraiz, M. Arrutza, K. Gallastegi, Maitena, A. Zubikarai, Basajaun, M. Olazar, L. Akesolo, ta abar. Sei urteko ekiñaldi zintzoaren ondoren, alan be, ixillera bearra izan zuen. Bizi laburra, tamalez, gure aldizkari askoren antzean.

Zer. — Illerokoa, bere 20'garren zenbakian doa. Aldizkari ederrenetarikoa gaur, azalari begiratzat. 16 orrialde ditu ale bakotzak. Bilbao'ko «Euskerazaleak» alkarteak ateratzen du, Martin Olazar zuzendari dala. Aurtengo jorraitileko zenbakian auek idazten dute: M. Olazar, J. Legarreta, K. Gallastegi, P. Solozabal, Utarsus, Lertibe, J. Arregi, A. Onaindia, Zangroniz, Endika, M. Estonba, A. Landajueta, ta abar. Bizi luzea opa diogu aldizkari pertxenta oni.

Aran. — Aratia'ko aldizkaria. Zulaibar Lanbide Ikastegia. Zeanuri. M. Olazar bertako irakasle dugu zuzendari ta bertako gazte talde batek darama diru-kontua. 16 orrialdeko aldizkari, tamaño anditan.

Arrati baillarako izpar, langintza, esne-gai, lagun-batz EHENE, arte-lan-gille ta lanak, kondaira, abes-batz, Udaletxe arazo, urigintza, aberegintza, jolas, kirol, dantza-talde, irakaskintza, alkargo-zaletasun (kooperatibismo), euskal idazle, olerkari ta olako gaiak jorratzen ditu batez ere. Atsegiñez irakurten dan illerokoa. Euskera eta erdera darabiltza, argazki ta marrazki ederez apainduta.

Umeentzako aldizkariak. — Gerra aurretik ba-ziran batzuk: «Mateo Txistu» ta «Poxpolin», adibidez; lenengoak bizi laburra izanagatik, bigarrena, Lopez-Mendizabal'tar Ixaka'ri esker, erne ta bizkor ibilli zan aurtxoan artean. Mugaz andikoak, labur bizi izan arren, «Pottolo» euki zuten asmo berdinarekin.

Geroagokoak dira Ondarrabi'ko kaputxinoen «Pan-pin» ederra, mugaz andiko «Xabier», Aita Murieta'ren «Umeen Deia», Zarautz'ko prantzizkotarren «Anaitasuna» aldikada baten beintzat, Bilbao'ko «Kilikili» ta Euba'ko pasiotarren «Ikastola»; azkenengo bi auek bizi dira oiandio, lenengoa J. A. Retolaza'k zuzentzen du ta Aita Fermin iralagoitia'k bigarrena; biak ditugu oso interesgarriak, umetxoak irakurten eta idazten ikasteko.

Azkenik, aipagarri dira Kardaberaz Bazkunaren «Liburuxka», berri-emaitza, «Deia», «Diario Vasco», «Punto y Hora», «Garaia», «Berriak», Durango'ko Leopoldo Zugatza'ren «Gaiak», eta beste batzuk, beren euskal lanagatik.

Aldizkari erreskada luze onen aurrean, zer? Aibeste agerkariz, zer da gure euskerearen alde? Goiago aipaturiko auetatik batzuk itzaliak izan dira, beste batzuk aurrera darraie. Baiña ez da errez, nasai samar beintzat, aurretik egitea. Irarkolako gauzak oso garesti jarri zitzaizkigu. Eta laguntza gabe ezin iraun. Euzkadi'n ba-da dirudik, ala ere, ta ez gutxi ere gogor artzen diran gauzetarako. Zergatik ez pizkat lagundu gure kultura zabalkunderako? Gure euskerari eusteko? Ala amets-laiñotan ibiltea ote dugu dana?

Berrogetaz urtetan diardut nik euskal arloan. Aldizkari bi —«Karmel» eta

«Olerti»— sortu ta zuzendu izan ditut. ainbat urtetan zuzendu ere; liburutan ordea, ogetamar bat dauzkat argitara emanak, inoren laguntza gabe, ta beste mordotxo bat dut dirurik ezagatik oindio argiratu bage. Ortarako ez dit inork ezer eman, esatekorik beinik-bein. Azken garalan, uste izatekoa zan edo nuen, «Bai Euskara!» kanpainā ondoren, niretzat ere izango zerbait; baina ortan arduratu ziranak, antza danez, beste asmo ta xede batzukin adortuak zebiltzan. Zerbait egin bearra dugu, orraitio, eremu ontan.

Gaur-egunez larriune beltzean bizi gara idazleok eta argitaratzailleroak. Txiki dugu Euskalerrria, ta irakurleak ez askorik. Aldizkariak biziko ba'dira, beraz, diru laguntasuna bear dute. Nola aukera laguntasuna? Nik sarri esan dot: Euskalerrriko erakunde, alkarte, batzoki, diru-etxe, aurrezki kutxa, udal-etxe, aldundegi, denda aundi industri, komertzi ta antzekoak aldizkari ba-koitzetik ale bat beintzat jasoko ba'lukete, dabilzan baiño askoz nasalago ibilliko litzakezalakoan nago. Gerra aurretik ba-zegoen olako zerbait. Gaur zergatik ez? Gauza zailla ote litzateke aipatu ditugun erakunde olek ale bat, edo bi, jasotzea? Geure izkuntza ta kultura eglazki maita ba'ditugu, ez eta ez!

AITA ONAINDIA

